

Jose Eizagirre

BASOTARRAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Basotarrak*, Eizaguirre'tar Josebak egindako
antzerkiya. 1913.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00399.htm>

BASOTARRAK

Eizagirre tar Josebak
egindako antzerkiya

1913

AGERLAGUNAK

INTZ: Emezortzi urteko artzai-nexka.

BASOJAUN: Berrogei ta amarren bat urtekoa.

SANTZO: Emeretzi urte.

ALONSO: Urbil-ko jaun zarra.

ZALDUN: Castilla-ko agintariak bidaldua.

PERU: Artzai zarra, Intz-en aita.

Gudari bat.

Bi morroi.

Alonso-ren emazia ta bere laguntzale emakumezkoak.

Zaldun-en gizonezko lagunak.

Guradi-taldia—Artzai-taldia (emakumezko ta gizonezkoak).

LENENGO ATALA

Basojaun bizi dan mendiko leitza edo zulu
barrendik antzokiyen agertzen da; atze aldi
leitzak zabal aldera dun ateera. Zabala illargiz
jantzia dago. Barrenen eskubitara su tokiya,
egur aundiz su puxka batekin; beste aldi gar-
oia.

LENENGO AGERRALDIYA

SANTZO, bakarrik

*(Aizkora ta beste izkilluk arkaitz batian
zorrozten ari dala, zapiya jasotzian
Santzo agertuko da;
bitartian berekiko abesten du).*

Mendi gañeko arkaitz aundiyan
Eginda bere kabiya
Arrano beltza azkatasunez
Inguraturik bizi da
Bere egatzak zabaldurikan

Austen du zero garbiya
Baleuzka legez bere mendian
Lurreko pixti guziyak.

Indartzu, azke, zabaldegiyan
Ederto oi zera ibilli
Goi zabal ortik beko aldera
Egin zenezake irrintzi
Kate ta burni astun tartian
Zuk ez dezula nai bizi
Zure kabira mendeatzallerik
Ez dala oraindik iritxi.

(Ate aldera joan da begiratuaz).

Luze iritzita nago.... bestetan baño berandugo izan arren nere aita ez dator.... bañan ez dago bildurrik, bere biotz ta indartasunez eragozpen guziyak garaituko ditu.

*(Utzitako lanari jaraitzen diyo
len bezela abestuaz)*

Arrano beltza menderatuta
Katez lotu nai dubenak
Mendigañeko arkaitz aundira

Iyo biarko du neketan
Betor onara, diyo arranoak,
Gelditu gabe kezketan
Nere biziko azkatasuna
Ez det galdu nai ezertan.

Bañan, zer aditzen det?... atean norbait dabi-
llela esango nuke..., piztiren bat ote da?...

*(Atera ta Intz arkiturik eskutatik
elduta indarrez barrena dakar).*

2. AGERRALDIYA

SANTZO ta INTZ

SANTZO: Ja, ja, ja... auxen da pizti edera eizatu
dedana... ja, ja, ja...

INTZ: Santzo... baño Santzo, utzi nazazu... arren
Jainkoagatik... uzten ez banazu ilko naiz...

SANTZO: Mirabe polit bat bein biar gendun zulo
ontan...

INTZ: Joaten utzi nazazu; ez naiz geyago etorri-
ko...

SANTZO: Ez dezazula bildurrik izan, Basojaun ez da oraindik etorri, ta badakizu ni ona naizela.

INTZ: Bai, baño zure aita noiz nai etorri liteke ta, emen arkitu ezkerro, biyok illgo gaitu.

SANTZO: Ez, ez da oraindik etorriko,.. ordu ontan gure zulo aldera zertara etorri zeran esan biar didazu... eguna oraindik aldi luze batian ez du zabalduko...

INTZ: Ardik zaintzera jeki naiz...

SANTZO: Ez, ortarako goizegi da... gañera ardita-tik gure zulora bide luzea dago. Nik zutzaz senti dedana zuri nigaz gertatze ote zaizu?

INTZ: Zer senti dezu bada?

SANTZO: Neonek ere ez dakit... Txikik giñanian bein baño geyagotan aurreko ariztiyan jolas aldi luzeak alkarekin egin giñuzen...

INTZ: Bai... ta neri aitag gogor ekiten zidan orduan, esanaz «ez al dakin mutiko ori Basojaunen aurra dala ta oik guziak alde gaiztoko ta etsayan jatorrikoak dirala?» ori aditzian ni asko bildurtzen nintzan.

SANTZO: Zu azi ziñan, ta ni ere bai... geroztik ez det zurekin jolasik egin, bañan ikusi bai, egunero ikusten zaitut... goizean ardi ta bildotxak artu ta larrera zuazenian ez

bada, illunabarrian bildotx ta arditxuak bildu ta etxera zatozenian arkaitz tarte batetik begira an nago. Nere gogoan zuga da beti, ta etxean ta mendiyan, lan, eitzat'atseden alditan egunez ta gabaz, esnait'ametsetan nere burutik ezin kendu zaitut... beti, lozorruan bezela, nere begien aurrian zaukat. Barrendik datorkit zureganako deya; zureganako leloa, zureganako naitasuna, zu gabe ezin bizi ninteke.

INTZ: Txoraturik naukazu, Santzo... orixen berada nik zuregan senti dedana. Zure oroitzak alaitasunez biotza betetzen dit, zure pozak poztu ta zure estuasunak estutzen naute; zu gabeko onik ez det.

SANTZO: Ene maitia!

INTZ: Bañan nik beñere entzun ez nituan gauzak zure aotik gaur entzuten ditut, egundaño senti ez nituan dardar eztitsuak biotzian ditut; oraintxe bertan naitasuna zer zan ez nekien; bañan zure itz legunak, zure biotz mugira leyalak ortze berriya nere arimari zabaltzen diote, nere begiyak egun berri batera gaur zabaltzen dira zure bidez... zorionekoa izan bedi gaurko gau eder au.

BIYAK: Gure naitasunian ain aldi motxa igaro arren, bere biarran arkitzen gera... Naitasun aundiz luzaro maite gaitian alkar...

SANTZO: Basojaun dator!

*(Basojaunen orrua entzuten da).—
Intz bildurturik joateko asten da
baño betarik ez du.*

*Zalapartan Basojaun sartu ta
Intz leitzan arturik asarratzen da.*

Basojaunek besoa luzaturik Intz-eri ateera erakusten diyo.

Intz joaten da laxterka ta Basojaunek arbasta batez Santzori ekiten diyo).

3. AGERRALDIYA

SANTZO ta BASOJAUN

SANTZO: Nexka oni, arren, etzayozula ezer egin, nik ekarri-arazi det aurreko aristitik...

BASOJAUN: Emen iñor sartzia nai ez dedala bada-kik, zertara etorri dek ergel ori?... Berriz nik emen iñor arkitzen ba diyat zatituko aut...

SANTZO: Utzi nazazu, ta zer gertatu dan esango dizut...

BASOJAUN: Utzi e... aundigoak eman biar nizkike... urrenarako ikasi ezaken... beñere ez dek ik nere esanik gordeko... Ire jostaketaz sua ere itzaldu zaik... egur batzuk ekarri itzak... Aizkora ta beste izkilluk zorroztu al dituk?...

*(Santzok egurrak ekartzen dizka.—
Basojaun su aurrian exeritzen da).*

SANTZO: Bai, zoroztu ditut... ona emen
.
.
.

*(Izkilluk erakusten diozka.—
Basojaunek gogapen garratzen bat buruan
darabill.—
Biyak alditxo batian ixillik egon da gero
Santzo mintzatzen da).*

Basojaunek ez diyo entzuten.

Barkatu nazazu, aita, ez det geyago iñor gure bizitoki ontan artuko... gaurkoa nola gertatu dan esan nai nizuke...

Aizkora ta beste izkilluk zorrozten ari nitzala ate aldian zerbait entzun da joan naiz, ta Intz arkitu ta sartu-arazi det, izketan asi gera ta alkarri esan diozkagun itz ederraz txoraturik nago.— «Maitetasun a zer zan ez nekien oraindik, bañan guk alkarregaz senti deguna ezagututa, maitatzia zer dan ikasi dot, nere biotza bereganatu dit.

(Esnatuaz bezela).

BASOJAUN: Zer, ori ere badegu?... oraindik jayo besterik gabe maitetasun ta olako txorakeriyaz asi al aiz? gaurtik aurrera olako gauzik aitatzia eragozten diat.

(Arrenka).

SANTZO: Baño aita... olako eragozpenik ez dizadazula jarri... lanik gogorrena agindu zadazu,... zuk nai dezun guztiya egingo det, baño nere biotzian gaur jayo dan maitetasun au, Jainkoagatik, ez zadazu katez lotu.

(Kupitzen da).

BASOJAUN: Larri ikusten aut; estu abill... neska ez dek zatara ta... gure arkaitz zulo ontan emakume bat ez litzakek gaizki etorriko... I basojaun ta ura maitagari, euzkotarraren bi indar ixillak; Basojaunaren beso sendoa, biotz gartsua, ta maitagarriren itzal goxua, maitetasun ezti ta biguña, batek guda, aserre ta burrukara zeramak, bestiak berriz bere atsegin ta pozez, pake samurrian, zelai loratsu batian lez, bere kerizpean gordetzen dik...

(Pozez).

SANTZO: Bañan gauz oyek guziyak egitan esaten al ditusu?... Ametsetan nagoala iruditzen zait... laztandu nai zaitut... *(Laztantzen du)*. Su bezelako aitik ez da ludiyan... Poztutzen nau zu orla ikustiak... lenago oso naigabeturik zeuden... zer zendun ala egoteko?

BASOJAUN: Berriz lengo oroimena burura ekarri arazi didak... Berdin gero ere jakin biarko

dek eta barrenen daukaten guziya erakutsi
nai diyat...

Ik aita deitzen didak, baño ni ez nauk ire
aita... gaurko egunaz urtero naigabeturik
arkitu oi nauk... gaurko egunaz ire aita ill
uan ta i ere galtzezo zoriyan arkitu itzan.

(Arritzurik).

SANTZO: Bañan nola liteke... esan zadazu... txau-
turik nago...

BASOJAUN: Bai, jakiteko orduba ba dek; ez aiz
lengo mutill koxkorra, gizon bat aña ba aiz
orain, ni berriz zartzen ari nauk, ta gaurko
egunez biyok nola alkartu giñan esan nai
diat
.

Orkestaz ixiltxo lagundatako itz-aldiya.

(Basojaun aitz ipurdi batian exerita asten da.

*Santzok, lurrian-etzanda, aoa zabalik entzuten
dio*

eta bere edestiya aurrera dijoala sututzen da).

. gaztelu eder batian jayo itzan;
ire aita ludiyan izan liteke gizonik onena

uan; gudan biotz-dun ta indartsua, ta ongi-
lle ta biotz bera pakean mendeko-entzat
zalako, inguruko guziyak maite zuten; ni
bere urkoa izandu niñuan. Nai etziyon etsai
bat baziyan ta ire etxeko zorientasuna
galdu uan bein betiko. Bat banaka atseka-
be ta galerak gertatzen asi ituan, samiñak
danak, baño azkenekoak ikaragarriyak.
Egun batian ire ama gaxotu ta bere gaitza
ain gogorra ez izan arren, ill uan, ango
negar samiña!, zertatik ill zan iñork ezin
asmatu zikan... baño gero jakin gendunez
gizon zital arren eginkizunak izan ituan ori
ta gero gertatu ziran izugarriyak.

(Abesturik).

SANTZO: Ta gizon ura zakur baten antzera, ilko
zenduten... e...

BASOJAUN: Ez, oraindik bizi dek.

SANTZO: Nola liteke? Nun bizi dan esan zadazu ta
neonek nere atzaparrez biotza kendu nai
diot.

BASOJAUN: Ez diat oraindik azkendu... ori baño
gauza latzaguak aditu biar dituk entzuten
badidak...

SANTZO: Jarraitu ezazu bada ta amaitu arte entzungo dizut, al badet...

Lengo eran orkestaz ixiltxo lagundutako itzaldia.

BASOJAUN: Gauz oik eta beste zitalkeriyak gertatu ondoren, aldi batian berririk izan ez uan; bitarte ontan ire aitaren areriyoko arrek bere almen garatza inguru guzira zabaldu nai zikan; aita onegiya izanik, bere etsayak eskubide ta jabetasun guziryak kendu nai ziyozkaten. Aurrez-aurre ta arpegiz-arpegi motz gelditzen zirala ezaguturik, itzaletik galdu nai izan zikaten. Garai artan ire aitarekin gudalari negola, beste guda-gizonekin batian ire gazteluan bizi niñuan. Gau batian, ni urruti nitzala arg itasun gorri bat gaztelu aldetik agertu zala ikusirik laxterka etorri ta jauregi guziya su ta gar arkitu nian; zer egiten nun ez nekiela garretara sartu nitzanian ire aita iltzeko-zoriyan ikusirik bere laguntzan bertaratu ta eldutzera nijoanian, «ez, ni utzi nazazu, esan ziraken, nere semetxua jaso ezazu al badezu...» autxe iya ituan eoken i... nere besoetan i

artu ta, etzekiat nola, baño Jainkuaren laguntzez, gar aetatik atera indukadan... ire aita ta beste guziyak an gelditu itukan betirako...

Orduan ire aitaren etsai arrek bere agintasun ta almena sendotu zikan ta oraindik ere toki artan eta bere inguru guziyan zital arrek agintzen dik. Ire aitaren semerik bizi danikan ez dik arrek uste, danak an kixkaldu zirala uste dik, jakin bazun i eraill arteko onik izango ez uan; orrengatik ni ordeka utzi ta irekin mendi-mendira etorri niñuan ta emen azi aut...

(Abestuaz).

SANTZO: Zitalkeri ayek egin zituan biotz gabeko gizon makets ori zein da?

BASOJAUN: Zinetsiko ez uke... geyena al lezaken gizona dek, Urbil-ko Alonso, jaun zarra.

SANTZO: Gizon orrek nere eskuetan bere biziya utzi biarko du.

BASOJAUN: Bai, nik lagunduko diat; ortarako gaur emezortzi urte sutatik jaso iñudan, ortarako maitasunez, ta al nun era onenean azi

aut, ortarako aizkora ta azkona eskuetan erabiltzen erakutsi diat...

SANTZO: Naizen guziya zuri zor dizut, aita ez bazera ere, aita aña maite dedan ordekoa zaitut, zuk neregatik egin dezun guziya nola nik ordainduko nizuke?... Orain joan biar naiz...

BASOJAUN: Nora?

SANTZO: Urbil-ko gaztelura... gizon txar ori eza-gutu arteko oniz ez daukat... gastia naiz, besoa sendo arkitzen det, eginkizunik gogorrenerako biotzak laguntzen dit... eka-tzu bada nere aizkora-motxa ta nere aizto zorrotza.

BASOJAUN: Joan biar ori gastetazunak erakusten dik; ez, ez aiz gaur joan biar... nik esango diat noiz, ta neoni irekin joango nauk.

SANTZO: Ez, ez, utzi nazazu, zuk esandako gauzak biotzeraño iritxi zaizkit, gaur bertan joan nai det...

BASOJAUN: Ezetz esan diat; oraindaño ortarako gorde auten bezela gero ere ire aitaren oroimen ederra berritzeko bidian neonek jarriko aut... ez dezagula gaur orretzaz geyago itzik egin.

Orain eguna zabaltzen asi dik eta lo egiteko garaya dek... gaur emezortzi urte lo aundirik ez nian egin.

SANTZO: Zuk gaur esandako berriaz nere adimena ezin jantzi da oraindik... bat-batian ludi batetik beste batera eramán baniñuzu bezela nago. Nere buruan dagon nasketaz lo egiterik ez daukat... etzateko ez nago.

BASOJAUN: Etzan egin biar diagu bada; lo egin da gero, nundik asi biar geran erabakiko diagu.

BIYAK: Etzan gaitezen bada, eta lo eder ta osogarrri bat Jaungoikoak eman begigu... alaxen.

(Basojaun su aurrian ta

Santzo garo-oian etzaten dira).

Zabalian eguna argitzen asi da.—

Oso uruti artzayen goiz-abestiya entzuten da;

artaldiak beren biltokitik mendira

zabaltzen dituzte

ardien txillintxoekin batera abeztuaz.

4. AGERRALDIYA

BASOJAUN ta SANTZO lo,
artzayen goiz-abestiya urruti.

Gaba igaro ostian eguna dator ta eguzki ederrak ludi guztiya alaitzen du... Ernaitzen da lo zegoen artzaya, txori ariña adarretik ostroma bere zoriontasuna abesturik txoroa dabilll.— Ibaiko uraren otsak ta urutiko txakurren zaunkak agur egiten diote egun berriari: Agur.

Zeruetan zauden gure Aita, donetsia, izan bedi zure izena.

Zure ala betorkigu,
Zure gogoia egin bedi
Zeruan lez ludian be

.....
.....

*Orkestan aizkeneko nota gutxituaz
amaitzen dun bitartian nekez zapiya jetxiko da.*

BIGAREN ATALA

Atal onek bi zati ditu. Lenengo zatia Urbil-ko Alonso jaunaren jauregi edo gazteluan. Zapiya jasotakuan jauregiko gela-nagusiya agertzen da; atzeko aldian ta zabal-aldera leyo ederrak.

Gaztelura *Castilla-ko Erregeren* agindez etorri dan Zaldunaren izenean jayak, gudariyen indar ta trebetasun neurritziak ta beste orrelako jolasak egiten dira, ta etxeko-jaun, bere emazte, laguntzalle ta erbestetarrak jai ta jolas ayek antzokitik atzeko aldera begiratuaz ikusten dituzte. Illunabara dator ta atal au asi ta azkar jolasak amaitzen dira, ta geroko egintza gabaz gertatzen da.

Aldaketa azkar batez, bigarren zatiya mendiyen gertatzen da.

LENENGO AGERRALDIYA

Urbil-ko ALONSO, ZALDUN, Alonso-ren emaztia, gizon-ta-emakumezko bere laguntzalleak ta gudari bat.

*Zapiya jasotzen danian Alonso ta bere lagunak
ardura aundiz leyotik zabalera begiratzen dute
alkarri ezer esan gabe; alditxo bat orla igaro-ta,
bat-batian txaloka asten dira;
zabaletik ere txalo,
irrintzi ta itz-otsak datoz,
tronpeta soñuak ere bai,
ta oyek denak indar-neurtze bat
azkendu dala esan nai dute.
Beste jolas bat asi bitartean
antzokiko gure jaun oyek
bere artian itz egiten dute.*

ZALDUN: Zure gudagizonen indar ta egokitasunez
arriturik nago, emen bezin gudari azkarrik
iñun ez det arkitu.

ALONSO: Inguruko mendi aundi oyek begira itza-
zu, or jayo ta beti bizi izan dan gizona arga-
la ezin izan liteke.

BATEK: Egiya esaten dezu...

BESTE BATEK: Mendi oyek orrela dauden bitartian
euzkotarrak indarrez menderatzea ez da
erreza izango.

ALONSO: Ezin liteken gautzatzaz jo zenezake.

ZALDUN: Alonso, guk asi nai degun guda ortarako zure gizonak onenak izango giñuzke ta al dezun guziyak eraman zazkiguzu.

ALONSO: Al dedan guziya egingo det, bañan nai ez duten tokira euzkotarrak eramatea erreza ez dala esan dizut... (*Zabalekoai*). ...Gaba dator ta gaurko jai oyek amaitzeko azkona-jolasa egin ezazute...

(Zabalian txalo ta ardalla entzuten dira ta Alonsok erbestetarrai azkona-jolasa nola egiten dan ezagutu-arazten die).

BATEK: Zer jolas da ori?

ALONSO: Jolaslariak toki jakin batetik bere azkona bota biar dute ta urrutiena botatzen duenak irabazten du.

BESTE BATEK: Ikusgarriya izango da jolas ori.

ALONSO: Jolas onekin artzaldeko jayak amaitzen diranian, sarituak izan diran guziyak beste guda gizonekin, zuek agurtzera onara igoko dira.

ZALDUN: Pozez agurtuko ditugu...

GDAGIZON BAT: Alonso jauna, azkona-jolasian zure gudariyekin artzai gaste batek azkona bota nai du, beste guziyak atzera (*Zabale-*

tik dator) utziko ditula diyo.— Utzi egin biar al zayo?

ALONSO: Parragarri geldituko da, baño utzi sayozute. (*Bere lagunei*). jolasa aстера dijua

(Denak zabalera begira jartzen dira; aldiz aldi txaluak ta itz-otsak berritzen dira, aizkenian txalo, ardalla ta irrintziyak aundiguak entzuten dira.— Artzayak irabasi du.— Tronpetak edo adarsoñuak ere entzuten dira).

ZALDUN: Ikusten al dezute, artzai gastiak irabazi du, ez da makala bera, sendo ta egokiya da, zure gudagizontzaz artu dezakezu.

ALONSO: Bai, ala da, beste sarituakin orain etorriko da ta nerekin gelditu nai ote dun galde-tuko diot.

(Exerita zeuden tokitik altxatzen dira baño zabalera begiratzen dute oraindik)

2. AGERRALDIYA

Illunabartzia

Lengoak eta morroi bi

LAGUNTZALLETAKO BATZUEK: Etxeko jaun ta bere sendiyari Jaungoikoak gabon diyeia, gaur bere etxean arkitzen diran erbestetar jaun zintzoai ere baita.

*(Zabalian illuntzen du ta ezkillak entzuten dira.
Zabaleko susmur ta ardalla gutxitzen dijoaz
amaitu arte.*

*Bitartian morroi biyek gela nagusiko argiyak
piztutzen dituzte ta eskubitan arkitzen diran
alki ederratarra Alonso-ta bere lagunak datoz).*

ALONSO: Baita zuei ere...

LENENGO GUDA GIZONA: Gaur artsaldeko neurtze ta jolasetan saritatuko gizon ta gaztelu ontako zure gudari bikañak zu ta zure gaurko txanguak agurtzera datoz zuk aurreratzeke baimena ematen badiezu.

ALONSO: Beto, betoz aurera...

3. AGERRALDIYA

Lenguak eta gudari-taldia

*(Orkestak guda soñua jotzen dun bitartian
sartzen dira gudari-buruak beren emaztiakin,
guda gizonak bakarrik, artsaldian
saritutakuak ere bai;
denak Alonso ta bere lagunak aurrera iritxi
ta gorputzez agur bat egiñik aldamenetan
gelditzen dira. Gero denak abestutzen dute).*

TALDIAK:

Urbil-ko Alonso jaun onarekin
Artuta izkillu zorrotza
Joan nai genduke etsai artera
Entzun arazten gud'otsa
Au degu gure buru sendoa
Beregan degu biotza
Jaunak berari luza bizayo
Urte askoan bizitza.

ALONSO: Ara emen nere gazteluko gudagizon
biotz-dun ta bikañak.

ZALDUN: Gudari egokiyak! biotz barrendik agur-
tzen zaituztet.

TALDIAK:

Agur Alonso Urbil-ko jauna
Biotz aundiko gizona
Zure ondoan bizi nai degu
Izateko zoriona
Agur zurekin jauregi ontan
Dituzun erbestetarrak
Zaldun egoki bikañak dira
Agur gudari jatorak.

4. AGERRALDIYA

LENGOAK eta SANTZO

*(Ontan ate aldera denak begiratzen dute;
artsaldian saritulako artzaya dator, Santzo da.
Orlako toki ederretan oitu gabia izanik
bildurtuta bezela,
alde guzietara begira aurreratzen da;
batzuk parrez
bestiak arduraz, denak berari begiratzen diote).*

ALONSO: Atoz, etzaitezela bildurtu, gaur artsaldian azkona-sariya irabazi dun artzaya zu al zera?

SANTZO: Bai... jauna.

ALONSO: Azkonalari bikaña zera, indartzu ta ego-kiya.

SANTZO: Basotarrak besoa sendo izan oi degu... zu Alonso Urbil-ko jaun zarra zera noski.

ALONSO: Bai, ta gaztelu ontan guda gizontzaz gelditu nai badezu...

SANTZO: Ortara ez nator, ori baño eginkizun gogorrago bat dakart... uzten badidazute ipui bat esan nai dizutet.

ALONSO: Esan ezazu bada.

SANTZO: Au bezelako gaztelu eder batian, jaun ta biotz aundiko bat bere sendiakin bizi zan, inguruko guziak nai zuten ta danak ongi bizi ziran; gizon zital batek bere almena kendu nayeon t'aurrez-aurre ezer ezin zuala ezaguturik itzaletik ekin zien. Zitalke-ri asko egin ondoren gazteluan emen gaur bezela, jayak ziran egun batian, jauregiari su eman zion ta etxeko jaun, sendi ta guziyak antxe kixkaldu ziran; gaizki esan det, etxeko jaun arren seme gaztetxo bat artian bizirik gizon zintzo batek sutatik jaso zun.

Zunbeltz-tar Jon zan etxeko jaun ongille ura, nere aita laztana ta beste gizon zital, gaizkille, makets ura zein zan bai al dakizute?—Bada zan Urbil-ko Alonso, ori bera...

(Inguruko denak arriturik daude).

ALONSO: Gizonak, ero ori lotuta eraman ta euki zazute zer egin biar zayon nik agindu arte.

SANTZO: Ez, zure biziaren eske nator
.

*(Bere aizto zorrotza eskuban dula Alonsori
gañera dijoakiyo,
Alonsok atzera egiten du ta Santzo gudariak
eltzen dute.
Badaramate. Zalaparta andiko egintza).*

ALONSO: Beko zulora eraman ta zakur baten antzera ill ezazute!...

(Santzok azkatzeagatik indarrak egiten ditu).

ZALDUN: Bere jaunaren kaltez orla jartzen dana goikoagatik zinzilikatu biar litzake...

DENAK: Ori, ori...

5. AGERRALDIYA

LENGOAK eta BASOJAUN

(Atzeko leyo batetik sartzen da Basojaun).

BASOJAUN: Santzo, nere mutilla nun abill...?

DENAK: Basojaun, Basojaun!.
.

*(Basojaun ikustian Santzo uzten dute
ta antzokiyari bi aldetara bildurrez ta ikaraz
biltzen dira;*

Santzo ta Basojaun besarkatzen dira).

BASOJAUN: Mutill au, egia esaten dulako ill nai zenduten?... Santzo, ire aita eta sendi ona galdu ta ire etxia erre zun gizon ergel ta zital ara or daukak... Jaun zar ori bera dek.

ZALDUN: Gizonak, bi artzai txatxu oyek lokarriz lotu ta zulora eraman gabe, nola uzten dituzute?

ALONSO: Ori da, ori, berenagusi ta Jaunari orlako gauzak esaten entzun ta nola zaudete gel-dirik?

BASOJAUN: Ez, gizonak, ezertan ez nekatu... Alonso, gogoratuko zaizu noski, zer barrengo poza izan zendun Zunbeltzeko jauregiya sutan ikusi zendunian...; jaun zintzo arren sendi guztiya antxen kixkaldu zala uste zendun; ara emen nik gau artan jaso nun aurra; zuri gau onak ematera biok gatoz ta ez utsik. Zunbeltzeko su ikaragarri arren antzera emen ere gar aundiko beste bat eskeñi nai dizugu, ikusten al dezu?— Ara, aurki bere txinpartak leyo oyetaraño iritxi-ko dira... ja, ja, ja.

(Suaren gorritasuna besterik ez da agertzen alde guztietatik.

*Gudagizon, emakume, zaldun
ta guztiak eroturik*

*batetik bestera dabilta, gelatik atera nai dira,
baño alde guzietan sua arkiturik oster
gelara datoz.*

*Izkanbilla aundiko gertaera ikaragarria.
Egintza azkarra.*

*Basojaun ta Santzok leyo batetik
itzul egiten dute).*

ALONSO: Zuazte ortik inpernutarrak.

BATEK: Sua... sua da...

BATZUK: Emendik... emendik zatozte... zer da
au... alde guziyak suak artu ditu.

BESTIAK: Galduak gera... ene Jaungoiko maitia.

ALONSO: Ludi ontan orlako etsai bat nuenik ez
nuen uste... au da maketskeriya.

*(Suak etxea den artu du; antzokiya gorri-gorri
agertzen da.—*

*Gazteluko ezkillak denai deika jotzen dute.
Izkanbilla aundinian dala zapiya jexten da).*

ZALDUN: Atera-bidia erakutsi zaguzu, bestela
denok emen kixkaldu biar gera

.
.

BIGAREN ZATIYA

Orkesta-ren bitartekoa.

(Iñork itz-egin ta erestu gabe, zati au orkesta utsezkoa da. Antzoki edo agertokiyan mendira bidia. Basojaun ta Santzo sutan dagon Urbil-ko gaztelutik itzul egin da, mendira dijoaz. Orkesta ari dala, antzokiyan ezkerretatik agertzen dira, ta arkaitz baten gañean gelditurik atsegiñez begiratzen dute. Suaren argitasuna antzokiraño irixten da ta Santzo ta Basojaun bere gorritasunez inguratu ta apaintzen ditu. Biyak bere egin-kizunez pozturik daude. Ontan adar-otsak entzuten dira; gazteluko guda gizonak beren ondoren, beren eske datoz. Au ezaguturik Basojaun ta Santzo mendian gora dijoaz. Adar otsak gero-ta bertarago entzuten dira ta ots oyek bilduaz Orkestak amaitz eder bat egiten du. Zapiya jexten da).

IRUGARREN ATALA

(Gertaera mendi baztar batian da; eskubitara Basojaun ta Santzo bizi diran zuloaren atea. Arratsaldia da ta eguzkiyak aizkeneko argitasunak bidaltzen ditu).

LENENGO AGERRALDIYA

Artzai-eresiya uruti, PERU,
Arzai-taldetxua; gero INTZ urruti.

(Lenengo atalaren azken eresi bera artzayak urruti eresten dute, bañan an gutxituaz entzuten dan lez emen gero-ta-geyagotuaz agertzen da).

ARTZA-TALDIA URRUTI: Negu luze bat joanda ta bere atsekabe ta illuntasunak berekin daramazki; uda-berriko epeltasun pozgarriaz gure mendi galantak margo ederrez jantzirik, alai ta garbi arkitzen dira...

Ardi apalak, bildotx gaxuak, artzai azkarrak
postu bitez.

*(Artzai eresiya ari dan bitartean,
antzoki barrenean Peru agertzen da
ta txistu egiñik bi aldetako artzayak deitzen
ditu; laxter amalau edo ogei neska-mutil biltzen
zaizka. Bere ayek artuta aurrera dator).*

PERU: Atozte, atozte, gauza gogor bat esan biar
dizutet...

DEÑAK: Zer da, zer gertatzen da?

PERU: Eginkizun ikaragarriya Basojaun ta bere
semiak egin dute...

DEÑAK: Zer egin dute bada?...

PERU: Urbil-ko jauregiyan agintari goiko bat iritxi
dalako atzo jai aundiyak ziran; bada arra-
tsaldeko jolasak amaitutakuan, jauregi
barrenian nagusi, arotz guda-gizon, ema-
kume ta danak alkar agurtzen arkitzen
ziranian, Basojaun ta Santzok etxeari su
eman diote ta barrenian arkitzen ziran guz-
tiyak galduak dira...

ARTZAYAK: Gertaera garrantza da ori...

PERU: Gizon zital ta gaizkille izateko jayotakuak orlako txarkerik egiten besterik ez du jakiten...

ARTZAYAK: Ta nora joan ote dira.

PERU: Onera ez dira noski etorriko geyago...

BATEK: Orduan zure alaba senar-gairik gabe galdituko da.

PERU: Zer diozu? berritzu aundia! Nere alaba Basojaunen semiarekin ez da beñere ezkonduko, ezkontza ori eragozteko, alabiar balitz, nere eskuz ilko nuke.

(Urruti, baño bertaratuaz).

INTZ:

Maitetasuna zer dan
Iñortxok ez daki
Ez badu biotzian
Noiz baitian euki
Beraz txoraturikan
Ibilli naiz gaizki
Santzok maite ezpanau
Ilko naiz ni aurki.

ARTZAYAK: Intzek zer diyon entzuten al dezu?

PERU: Nik naitasun ori biotzetik kenduko diok...

BATEK: Ta onera dator...

(Artzayak badijoaz.

*Intz-en eresiya entzuten da berriz len baño ber-
tarago*

t'amaitzerako antzoki barreinan agertzen da).

PERU: Bai... zoazte, berakin bakarrik itzegin nai
det; a, zer aztindu aldiya artu biar dun!

INTZ:

Ekaitz gogor zakar bat

Igazi ostian

Asaltzen da eguzkia

Odeyen tartian

Olaxe baita ere

Biotz barrenian

Noiz-bait ageri oi du

Negar ondorian. . .

.

*(Peru Intz-eri bidera ateratzen zaio ta
besotik eldu ta zakarkeri aundiz
antzoki aurrera dakar.*

Intz asko bildurtzen da.

*Artzai batzuk, aita-alaben arteko
gertaera ikusten alditxo batian
antzokiertzian gelditu dira).*

2. AGERRALDIYA

PERU ta INTZ

PERU: Basojaunen seme txar orri geyago ez begiratzeko, ire biotzian ez artzeko, ta beraz geyago ez gogoratzeko, milla bider esan diñat... alaba batek aitaren esanak ez al dizkin gorde biar?...

INTZ: Bañan aita... Jaungoikoagatik...

PERU: Santzo ta bere aita inpernutarrak, alde txarrekuak dirala ez al dakin?... Basojaun ta Murumendiko sorgin zikiñen alkartze nazkagarritik jayotako ergel orrenarekin ire odol garbiya nastu nayan al abill?...

INTZ: Ori gezur aundi bat da. Santzo seaska edereetik dator, odol garbikua da...

PERU: Atzo Urbil-ko gazteluan egin duten txarke-riaz ez ditun geyago noski onara etorriko, bañan bada-ezpada ere iri toki ontara etortzia eragozten diñat...

INTZ: Santzo etorriko dala ba dakit... zergatik ez det ura maitatu biar...?

PERU: Gauz orretzaz geyago itzik entzun nai ez diñat... goazen, goazen emendik urrutira... goazen azkar gizon txar oyen izena iritxiko ez da toki batera... goazen...

INTZ: Ez, ni ezin joan niteke... Santzo gabe ilko nitzake... laxter emen da, ta ementxe itxo-egin nai diyot...

PERU: Goazen, nerekiñ ator, aitag agintzen diñ; onian nai ezpaden, gogorrian bederik nerekiñ etorri biarko den.

INTZ: Ez, indarrez ez naiz juango... emen jarraitu nai det...

PERU: (*usten diyo*) Bada nere alaba aizenik ez geyago esan, ta neregana ez geyago biur-tu... baño gogoan euki nik esandakua, San-tzo-rekin ezkondu baño len nere eskuz bio-tza kenduko diñat...

*(Santzo etorri biar dun aldetik,
laxterka Peru dijoa).*

3. AGERRALDIYA

INTZ bakarrik, gero SANTZO

(Orkestak alditxo batian jotzen dun bitartian arkaitz motx batian exeriz Intz negarrez dago: gero ereztutzen du).

INTZ: ...Orren zorigaiztokoa izateko zer gaiztakeri egin ote det...? Jauna, lagundu zaidazu.

(Berriz eskuartean burua artuta dagola antzoki barrenean Santzo agertzen da: bere bizitokira datorrela Intz ikusiyaz bereganatzen da).

SANTZO: Intz neria...

INTZ: Santzo, bizi al zera?... etorriko etziñala etsi nun...

SANTZO: Emen naiz bada... baño zer? zuk negar egin dezu... zergatik egin dezu?... norbaitek zerbait egiñ al dizu?

INTZ: Ez... ez... iñork ez dik ezer egin... zu etzetozen da... zerbait gertatu ote zitzaizun gogoratuaz...

SANTZO: Ain naitasun aundiya nitzaz dezula eza guturik, zutzaz txoratuta naukazu... bañan nere aita etortzen ikusi al dezu?... oraindik ez ote da etorri?

INTZ: Nik ez det ikusi... etorri danik ez det uste.

SANTZO: Bada, zerbait gertatzen zayola esango nuke... atzoko gertaera jakingo dezu noski...

INTZ: Bai...

SANTZO: Gaztelua garretan utzi ta biyok mendira sartu giñan; nagusien galera igarri zute-nian Urbil-ko gizonak gure eske asi ziran ta gure atzetik mendira zetozen; etzekiten nun zebiltzan, baño artzai bat arkiturik zer nai zuten esan ziyoten, ta ark toki ontako bidian jarri zitun... artzai ura zein zan etzenduke ziniztatuko.

INTZ: Zein zan bada?

SANTZO: Peru, zure aita... gure atzetik Urbil-era joana zan ta...

INTZ: Ene jainkua... ni zurekiñ ez ezkontziagatik egingo zun... Ori gertatu baño len, ala biar bada, bere eskuz biziya kenduko dirala oraintxen esan dit.

SANTZO: Etzayak gure mendiyan bertan giñuzela ikusirik, aitag eta nik ordu ontan emen alkartzeko asmua artuta alde banetara jo gendun...

4. AGERRALDIYA

INTZ, SANTZO ta BASOJAUN

(Urrutira Basojaunen oju apalak entzuten dira).

BASOJAUN: Santzo... Santzo... or altzera?

SANTZO: Entzuten al dezu, ori Basojaun da... zer ote du..!

*(Santzo ta Intz laxterka joaten dira;
Orkestak Basojaunen soñua apalki jotzen du.
Basojaun izkilluz joa ta alderoka dator;
Santzok eltzen diyo, geyago ibilli ezeñik
bizitoki aurrian etzaten da).*

...Baño aita, nolatan jo zaituzte?... miñ aundi-ya al dezu?... Intz, zoaz ta barrendik kaikubatian ura ekarri zaidazu...

(Intz joaten da ta zurreko ontzi batian ura dakar.

Santzok bitartian Basojauni bular-gañeko jantziyak azkatzen dizka).

Peru, makets ergel arren zitalkeriyak gauz
oyek guztiyak dakarzuki, a! ordaña kenduko
diat...

INTZ: Ona emen ura, mistela erre jarri diyot...
orretzaz bere onetara etorriko da...

SANTZO: Ekartzu...

BASOJAUN: Barrena erretzeko zoriyan daukat... ur
onek on egiten dit...

*(Batek galtzarbetatik jaso ta bestiak
ezpañetan ontziya jartzen diyo.
Edan ta Basojaun argitzen da).*

SANTZO: Etzayak urruti al dira...?

BASOJAUN: Ez, oso bertan izan biar ditek... Peru,
artzai kaskar orrek laguntzen ziotek...
azkar itzul egin ezazute baztar ontatik...
beztela emen garbituko zaituzte...

INTZ: Ez, ez, zu emen utzita ez degu joan nai...

BASOJAUN: A! ni onik banego or datozen zortzi
gizonak nere aizkoraz purrukatuko nituzke.

SANTZO: Ta ni ezertako gizon ez naizela uste al
dezu?... aizkora erabiltzen zerorrek ez al
dirazu erakutzi?... bada zure almen guzti-
yak neregan bildu nai nituzke... gure kaltez
or datozen zortzi gizon betar aul oyek men-

deratzeko ni bezelako basotar bat naikua da.

BASOJAUN: Ene semia! To nere aizkora ta berarekin artzak nere biotza... neriak egin dik... emendik aurrera Basojaun izan adi...

(Basojaun erortzen da.

Santzo aizkora eskutan duala etsayetara dijoa. Intz ere antzoki barneko arkaitz batera igotzen da atalan asieratik aratsaldia aurreratuz illunabartzen ari du. Intz-ek, dagon tokitik, Santzo ta bere etsayen arteko burruka ikusten balu bezela larriturik dago, batzutan estutzen da, bestetan poztuta toki artatik Basojaunen aldera etorriz oneri burrukako gora-berak erakusten dizka).

INTZ: Jaungoiko maitea... nere Santzo an dijoa... ene!, bat, bi, iru, lau... asko dira etsayak... nere mutilla jango dute... ara, bat jota bota du, ori dek ori!!... e! e!... bestiak, bi, iru, gañian dituk... bejondeikala!... Gogor ari dira; Santzoren aizkoraren txistua emendik entzuten det... bi edo iru bota ditu... e? nun dira, nun?... ara, berago joan dira... beso orren joera nork gelditu?... ekin... ekin!...

zortzi gizon zer dira orrelako basotar batentzat?... bera dijoaz... etsayak oña atzera bota dute... bi edo iru besterik ez ditu aurrian... bestiak nun dira?... itzul egin nai dute... jo, jo, eldu, eldu... bota ditu, bota ditu... garaitu du... bat, bi, iru, lau... asko ziran... denak etzanda or daude...

(Au esanda Santzo-ren bidera balijoa bezela alde artara itzul egiten du.

Bitartian Basojoaun-ek Intz-en esanez zerbait gallendurik arkaitz aldera joan nai luke baño ezin du, arrastaka bederik joaten asten da, indarrez bere gorputza biartzten du, puxka bat altxatzen da, baño bizirik gabe aizkeneko arnasetan erortzen da, eriyotza datorkiyo; Santzo-ren irrintzi zorrotza entzuten da. Orkestan garaimensoñu alditxo bat).

5. AGERRALDIYA

SANTZO ta INTZ

(Santzo ta Intz erestuaz aurrera datoz.

*Santzo-k esku batian aizkora
ta bestian etsayen izkillu-ausi,
burnizko txapel zalpatua ta orlakuak dakarzki).*

BIYAK: Basotarrak, len zeuden bezela azkatuak gelditu dira; betako euskaldun kutsutuak, arrotzakin naste dabiltzan oyek, guk nai degun artian ez gaitue menderatuko...

(Basojaun besotik erabilliaz).

... E!... zer da au... aita, aita?

INTZ: Zer dezu... naigaberen bat egin al zaizu?

SANTZO: Gogortua dago, au ez da naigabea, au eriotza da...!

INTZ: Ezin liteke, nere Jaungoiko maitia.

SANTZO: Bai il da, ta nik beragabe zer egin biar det?... Basojaun gabe umezurtz arkitzen naiz, orrela bizi baño ill nayago det...

INTZ: Ta bizi guztirako laguntzaz emen ez al naukazu ni, maite ez al nazu bada?

SANTZO: Bai maite zaitut... bañan zu aurrian ikusiyaz zure aitaren zitalkeriyaz nere Basojaun il dutela beti gogora etorriko litzai-

ket... zure odol ta neriaren tartian zorigaitzeko eriyotza jarri zaigu...

INTZ: Ene! bizi guztirako atsekabetasuna... betirako illunpea...

SANTZO: Gorputz maite oni lur eman biar diogu ... lurpeko baño obi ederragoa eman nai dizut... beti bizi izan zeran tokian gelditu bedi zure gorputza eriotzaren ondoren...

(Bere besotan artu ta eramaten du leitza-zulora: Intz atzetik negarrez dijoa ta zuloko atian gelditzen da, Santzo atera arte. Santzo ero baten antzera laxterka ateratzen da, bere illeak len baño arrogoak daude, bere begietatik txinpartak dijoaz; Basojaun-en aizkora eskuetan dakar. Bat-batian Intz-eri ekiten diyo).

... zure aitak usteko zun orren eriyotza gertatu ezkerro geyago Basojaun-ik etzala, betaiko gudari oyek ere ori usteko zuten... ez ba, ori il arren Basojaun ez da il.. orain ni naiz Basojaun, ta nere ondoren besteren bat izango da, mendi oyetan, baso beltz eder oyetan euzkotar zintzo bat dan bitartean Basojaun izango da...

(Mendi aldera asten da).

INTZ: Nora zoaz, Santzo, nora?

SANTZO: Basoan barrenago, mendian gorago, beko ergelkeri ta arrotzaletasunak oneraño iritxi dira... emengo artzayak ere beko gaitzez kutsutu dira, ni emendik banua.

INTZ: Bañan maite ez al nazu?... ez al gera beñere alkartuko?

SANTZO: Nork daki!...

*(Mendiyan gora erestuaz dijoa;
Intz-ek, negarrez, urrutira jarraiten diyo).*

Arrano beltza menderatuta
Katez lotu nai dubenak
Mendi gañeko arkaitz aundira
Iyo biarko du neketan
Betor onara, diyo arranuak
Gelditu gabe kezketan
Nere biziko azkatasuna
Ez det galdu nai ezertan.

*(Amaitza ontan guzian Santzok Basojaun biurturik
onendoñuak biltzen ditu ta ayek erestuaz*

antzokitik joaten da; Intz atzetik du. Bere aizke-
neko irrintzi ta orru ikaragarriak urrutiratuaz
entzuten dira ta mendiz-mendi basoz-baso
berriztuaz entzuten dira; Orkestak bein da
berriz jotzen ditu, Basojaun il arren, bere
gogoa, bere izaera bizi dala ta euzko mendiak
diran arte biziko dala erakutziatz.
Zapia jetxi ezkeroz doñu oyek gutxituaz amai-
tzen dira).